

BERRIGARA

9. zenbakia

JARDUN Elkarte, Bergara

1994, azaroak 18



Eskulangintza indarrean

OPEL VECTRA BERRIA

meig

GUTXIK EMATEN DUTE
HAINBESTE HAIN GUTXIREN
TRUKE.



10^o
URTEURENA

**TALLERES
OLA**

Olabarrena Auzoa, z/g.
Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46

ABIZENAK EUSKAL GRAFIAZ!



**ORAIN JARDUNek ZURE ABIZENAK LEGALKI
EUSKAL GRAFIARA ALDATZEKO AUKERA EMATEN DIZU.**

**Ez zaitetz etxean geratu eta etor zaitetz lehen bait lehen
guregana, ez dizu arazorik sortuko eta.**

**Kanpaina honek azaroaren 21etik urtarrilaren 31ra arte
iraungo du.**

**Informazio gehiago nahi izanez gero, etor zaitetz
astelehenetik ostiralera, 18.30etatik 19.30etara
bitartean, JARDUN Elkartera (Masterreka, 13 ☎ 76 08 19)**



**Laguntzaileak:
Bergarako Udala
Gipuzkoako Foru Aldundia**

Z E R B E R I D A ?

E S A N D U T E

JESUS KALBOETXEAGA BOTA Antimilitarista Taldeko kidea

- Soldadutzarako zozketa egin berri da...

- Larunbat honetan, hilak 19, zozketaren aurkako manifestaldi bat egingo da Donostian eta oraingo honek esanahi berezia izango du, Estatu osoan gaur egun 180 bat intsumiso direlako kartzelatan eta, bestalde, presoak eta antimilitarista mugimenduetako jendea egiten ari den gose greba dela eta. Larunbatean Donostiara joateko interesa dutenentzat kotxeak izango dira arratsaldeko 3 t'erdietan Popis tabernaren ondoan.

- Zein da epaitutako bergarar intsumisoen egoera?

- Guztira herriko 12 bat intsumiso epaitu di-



tuzte eta guztioi kartzela zigorrak ezarri arren, oraindik ez dira sententziak indarrean jarri. Dena den, Estatu osoan 10.000 intsumiso inguru gara eta eskatzen duguna zera da: guztiei tratamendu bera ematea, nahiz eta uste dugun ez daukagula inolako zigorrak jaso beharrik.

"Intsumiso guztiei tratamendu bera ematea eskatzen dugu"

"HIES gaisotasunak izkutuko lurralde zorigaitzekoan murgiltzen du pertsona, sexu harremanen bidez kutsatzen den gaisotasun hau zokoratuen izurri bihurtu nahi izan duelako".

LIERNI IRIZAR
Seropositiba
EGIN

"Nik ordutegi fijoak daukat lan egiteko: goizeko 8etan, iluntzeko 8etan; ahal dela jarraian eta zenbat eta gehiago hobe. Fresadoreen ordutegia daukat".

JESUS MARI LAZKANO
Pintorea
DEIA IGANDEA

"Gizakiok, biologikoki, espezie berekoak gara, gure artean antz handia dugu eta, aldi berean, desberdinak gara. Baina noraino hedatzen da norbere identitatea eta non hasten da diferentzia, eta ze harreman dute bata bestearekin?".

AGUSTIN UNZURRUNZAGA
Gipuzkoako SOS Arrazakeria
EGIN

I T U R R I O N E T I K

Euskal Telebistak "Miserableak" ikuskizuna grabatuko du

Euskal Telebistak Musika Eskolak bere X. urteurrena ospatzeko landutako "Miserableak" ikuskizuna grabatuko du abendu aldera. Jose Mari Otermin ETBko Programazio Zuzendaria dagoeneko harremanetan jarri da Musika Eskolako arduradunekin eta oraindik ez baldin bada ezer konfirmatu, baliteke musika Donostiako Miramon estudioetan grabatzea eta antzerkia berriz, inguruko herriren bateko antzoki batetan. Musika Eskolako arduradunek Arrasaten grabatzeko interesa azaldu dute. Behin muntaia eginez gero, ordu t'erdiko ikuskizuna Euskal Telebistan ikusi ahal izango dugu.

ERROTALDE JAUREGIA
20570 Bergara
Tfnoa eta Faxe: 76 03 97

Argitaratzailea:
JARDUN Elkartea.
Masterreka, 13 Bergara.
Tfnoa eta Faxe: 76 08 19

Zuzendaria:
Gorka Elorza

Erredakzioa:
Eneko Azkarate
Eduardo Mendibil
Mikel Elkorobereizibar

Maketazioa:
Eneko Azkarate
Eduardo Mendibil

Publizitatea:
Alex Azkarate

Harpidetzak:
Gorka Elorza

Testuen zuzenketak:
Estepan Plazaola
Mariipi Laskurain
Nerea Alzelai
Alex Labaien

Erredakzio kontseilua:
Miguel Angel Elkorobereizibar
Estepan Plazaola
Alex Labaien
Iñaki Eraña
Juan Martin Elxepuru

Komikiak:
Bittor Rodriguez
Gorka Ortega & Jon Alvarez
Jose Martin Ezenarro
Julian Ezenarro

Banaketa:
Txantxangorri taldea

Tirada:
3.700 ale.

Inprimategia:
Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

Copyright:
BERRIGARA

Lege gordailua:
SS 50/91

ISSN:
1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailaren laguntza jaso du

**FORREST GUMP**

Ostirala: 22.30.


Larunbata: 16.45, 19.30, 22.30.

Igandea: 16.45, 19.30, 22.15.

Astelehena: 19.30 (Ikuslearen eguna).

**LA REINA DE LA NOCHE**

Osteguna: 20.00.



Zinea

▼▼ **Tom Hanks** aktoreak izugarrizko arrakasta lortu du **Robert Zemeckisen** filme honi esker. *Forrest Gump* (**Hanks**) inozo zortedun bat da eta leku eta momentu egokian egoten daki. Autobus geltoki batean bere bitzita kontatzen digun bitartean, Estatu Batuetako azken 30 urteei errepaso ematen zaio, zentzu kritiko, umoretsu eta nostalgiko batetatik.

▼▼ **Arturo Ripstein** mexikarrak (*Principio y fin*) **Lucha Reyes** (**Patricia Reyesek** lantzen duen papera) kantariaren biografia imajinarioa aurkeztu zuen Canneseko Zine Jaialdian. Ospea eta izugarrizko pertsonalitatea izan arren, *Reyesek* zorientasuna lortzeko dituen eragozpenak azaltzen zaizkigu filme honetan.

Etsaiak, Dick Cheese, Non Demontre eta Bost Axola taldeek kontzertua eskainiko dute gaur, ostirala, gaueko 10etan Ipintza Institutoan. Kontzertua Ikasle Abertzaleak-ek antolatatu du ikasleen eguna ospatzeko. Sarrera doan.

Deiak

▼ **1944an** jaiotako bergararren 50. urteurrena azaroaren 26an, 7etan Santa Marinarin meza eta 9etan afaria Lasan. Izen-ematea: 76 28 33 (Elisa Ugarte), 76 42 42 (Jesus Aperribai), 76 42 08 (Arantza Alberdi), 76 50 64 (Itxasmendi taberna) edota 76 23 70 (Sánchez ileapaindegia).

▼ **Mendi irteera.** Pol-Polek eta Gorla Alpino Taldeak igandearako, hilak 20, Bernedo-Biasterira irteera iragarri dute. Goizeko 7etan Frontoitik.

▼ **"Miserableak"** ikuskizuna bihar larunbata 20.30etan Gasteizko Principal Antzokian.

▼ **Apostasia** egin zutenen bilera asteartean 19.30etan Kultur Etxean.

Ogia

▼ **Igandea 20:** Konde.

GOARDIAKO FARMAZIAK

- ▼ **Ostirala 18:** Camacho/Corcuera.
- ▼ **Larunbata 19:** Puy/Irizar.
- ▼ **Igandea 20:** Puy/Amezua.
- ▼ **Astelehena 21:** Guallar/Ruiz.
- ▼ **Asteartea 22:** Estella/Morales.
- ▼ **Asteazkena 23:** Mozos/Azkoaga.
- ▼ **Osteguna 24:** Camacho/Español.

MEMESA

P
phanton

IRIMO

ARRASATE 79 42 22 ARETXABALETA

SFK

Musikarien eguna

Santa Zezilia

Udal Musika Bandak kontzertua eskainiko du; 'Goraintzi' saioan irtengo da

Santa Zezilia eguna ospatuko du Udal Musika Bandak igandean. Goizeko 10etan meza izango da San Pedron, 11etan Udal Musika Bandaren kalejira eta eguerdiko 12.30etan kontzertua Novedadesen. Alfredo González Chirlaqueren zuzendaritzapean honako lanak eskeiniko ditu Bandak: "Campo de rosas" (Pasodoblea, Miguel Glez. Bastida), Alternances (A. Waignein), "Orgia" (dantza fantastikoetakoa) (J. Turina), "Acuarium" (Opus 5, J. De Meij) eta "La boda de Luis Alfonso" (Intermedio, G. Jiménez). Kontzerturako sarrerak 200 pezetatan jarriko dira salgai (haur, gazte eta jubilatuak doan).

Kontzertuaren ostean Bandako kideek bazkaria egingo dute Azpeitxi jate-txean eta bertan omenaldia eskeiniko zaie Banda utziko duten Matias Az-



Egun bereziak izango dira igandea eta asteartea musikarientzat.

karate eta Iñigo Alberdiri. Matias Azkaratek 50 urte inguru eman ditu

Bandan kaja jotzen eta Iñigo Alberdi gazteak, berriz, azken 3 urtetan tronboi pistoigabea jo izan du. Alfredo González zuzendariaren hitzetan, "oso egun espeziala izaten da Santa Zezilia Banda osatzen dugun 69 musikariontzat eta gainera omenalditxo

bori gehitzen zaio aurtengoa".

Igandean bertan 15.30etan ETB-1eko *Goraintzi* saioan ikusi ahal izango dugu Udal Musika Banda. Bandak bi pieza joko ditu bertan: "Campo de rosas" eta irlandar folkloreko "A Highland Rhapsody" (Han Van der Roost) izeneko lana. Alfredoren hitzetan, "Banda gaur egun momentu onean dago. Orain gutxi ere irrati emisora batean izan nintzen beste bi banda-tako zuzendariekin batera eta Bergaran egiten den lana oso apezziatua dela azaldu zidaten. Eta oraindik lanean jarraitu behar dugu: daukagun jendearekin maila altuagoa lortzen saiatu behar gara".

Bestalde, asteartean ospatzen den Santa Zezilia egunerako hainbat ekitaldi antolatu dira Musika Eskolan: arratsaldeko 5.15etan Gazte Bandarekin kalejira izango da, ondoren txokolatada eta, amaitzeko, 18.30etan musika filme bat eskeiniko (tituloa zehazteke dago oraindik) da Novedades aretoan.

Musika Eskolak ere Santa Zezilia eguna ospatuko du martitzenean. Kalejira eta txokolatada iragarri dira

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots,
untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi ☎ 76 15 09

Siaska

Dena zure
haurrarentzako

San Pedro, 10 ☎ 76 10 39

Pepelu

Ileapaindegia

Zurradero, 2 behea ☎ 76 43 07

Udal Gobernu Batzordea: gezur baten historia

Euskal Herriak, gainontzeko nazioek bezala, bere hizkuntza eta kultura dauzka eta hauek landu eta zaindu behar ditu. Esaldi hau, seguru, Udal politikagintzan ari garen guztiok, edo gehienok, izenpetuko genuke -are gehiago hauteskunde bezperatan bageunde-.

Baina zoritxarrez, betikoan gaude. Hainbeste kanpaina, Hitzarmen, euskalduntze plangintza, deklarazio ponpoxo eta argazkiren artean, Gobernu Batzordeak euskaldunoi funtsezko eskubide bat ukatuz, euskaldunok diskriminatuz eta Udal agindu bat mespresatuz ez du, azkenaldi honetan, beharrezkoa den euskara gaitasuna kontutan hartu hainbat lanpostu betetzeko, bostguk dakigunez, Kirol eta Gizarte Ongizate Zerbitzuetan.

Gobernu Batzordeak giza harremanetan oinarritzen diren horrelako lanpostuetan euskara gaitasun hori esijitzen ez badu, esaten eta egiten duenaren artean kontraesan izugarri bat ikusten dugu. Honelako gauzak baimentzen dituenari, jakinaren gainean egiten baditu, hipokrita deitu

beharko genioke eta, horrela ez bahlitz, txapuzero.

Kontua da Gobernu Batzordeak herritar guztientzat ezarritako aginduekiko konpromezua mantentzen ez duenean eta, PNVren kasua euskararekiko, agindu ideolojiko propiotzat proklamatzeko dituen printzipioekiko leialtasuna ahanzten duenean, kontua da, euskararekiko egiten ari den politika gezur huts bat besterik ez dela.

HERRI BATASUNA ETA EUSKO ALKARTASUNAKO ZINEGOTZIAK


Zuzenketa

LILURA Edertze Institutuak antolatzen duen makilaia ikastaroari buruzko iragarkian akats bat agertu zen joan zen astean. Bisajista-ren ordean, Masajista jarri genuen. Beraz, Bisajista Ikastaroa da LILURA Edertze Institutuak antolatu duena. Barkamenak LILURARI eta ikastaroan parte hartu nahi duzuen guztiei, oker honengatik.

BERRIGARA

Tiira biraka

GORKA ORTEGA & JON ALVAREZ



◆ **Ginekolojia**

Ginekolojia Zerbitzuan txanda hartzeko gutxienez 5 hilabeteko epea itxaron behar denez, herriko hainbat emakumek sinadura bilketa egingo dute bihar larunbata herriko hainbat tokitan. Ondorengo bi astetan, berriz, denda eta tabernetan sinadura orriak egongo dira.

◆ **Tonbola**

Egunkariako tonbolako boletoak herriko hainbat tabernetan jarriko dira salgai eta sariak Odol Emaleen ondoko lokalean jaso ahal izango dira astelehen eta ostegunetan 6.30etatik 8etara.

JAIOTAKOAK

Iker Mellado Guirao

Azaroak 6

Markel Manuel Zelaia

Azaroak 10

Maitane Mujika Unamuno

Azaroak 13

HILDAKOAK

Milagros Lazkano Arriaran

Azaroak 13, 53 urte

Rosario Iza Urkijo

Azaroak 14, 75 urte

Gazte Asanbladakoek Gaztetxe berria aldarrikatu dute astean zehar

Astean zehar Gazte Asanbladak hainbat ekitaldi egin ditu Gaztetxetik bota zituztenetik lehen urteurrena betetzen zela eta. Aurreko larunbatean herri-bazkaria, antzerkia, kalejira eta rock kontzertua izan baziren ere, astean zehar ere protesta ekitaldiak izan dira.

Asteartean, Gazte Asanbladak deituta, Ipintza eta Miguel Altuna Institutuko ikasleek greba eguna egin zuten. Gazteek iaz gertatutako desalojoaren parodia egiteko asmoa zuten baina Ertzaintzak ez zien utzi. Eguerdian manifestazioa egin zen herriko kaleetan eta gazteek elizaren kontrako oihuak bota zituzten. Era berean, udal bulegoen aurrean, lokal bat aldarrikatu zuten.

Astearte arratsaldean beste manifestazio bat izan zen eta istiluren bat ere gertatu zen. Gazte batzuk etxafleroak jaurti zizkien ertzainei, inor jo ez zuten arren, eta hauek hainbat gazteri nortasun



Gaztetxea aldarrikatzeko Gazte Asanbladakoek astean zehar antolatutako hainbat ekitalditan erabilitako "perretxikoa".

agiria eskatu zien, baina ez zen bestelako arazorik izan. Bestalde, Gazte txearen aldeko pintadak azaldu dira egunotan Seminarioko baxuetan eta Jauregi Etxean. Amaitze-

ko, aipatu, iaz Gaztetxetik atera zituzten egunean alkatearen kontra eginitako irainengatik hiru gazteri egingo zaien epaiketa pendiente dagoela oraindik.

Hobekuntzak auzoetan

Asteleheneko Plenoan EAJ eta PSE-EEren aldeko botoekin Udala eta Euskaltegiko aurrekontuetan 21 milioi pta.ko aldaketa onartu zen. Transferentzia hau uste baino gutxiago gastatu den partidetatik bestetara egingo da eta aurrekontuek ez dute igoerarik izango. HBk eta EAK kontra botatu zuten bere momentuan ere Udaleko aurrekontuaren kontra agertu zirelako. Angiozarren (Azpiko Kalean), Osintxun (Etxeberri etxearen ondoan) eta San Juanen (Gaztain-Zabalen) hobekuntza lanak egitea ere erabaki zen astelehenean; guztira 6 milioi pta. inguruko kostea izango duten lanak. Era berean, onartu ziren Kontuhartzailtzarako administrari bat kontratatzeko oinarriak, J.A. Ondarrak Angiozar duen 15,8 m2ko lursail baten zesioa eta Emilio Ucin eta Maria Pilar Inzak San Antonion duen 52 metro karratuko beste lursail baten zesioa ere bai.



◆ HBk intsumisoei elkartasuna adierazi

Herri Batasunak deituta, aurreko larunbatean konzentrazio bat egin zen Bergarako Epaitegiaren aurrean gose greban diren intsumisoei elkartasuna adierazteko. Guztira, 20 bat lagun bildu ziren intsumisoei jasaten duten egoera salatzeke.

◆ Jubilatua

Astelehenean, Santa Zezilia ospatzeko, Jubilatuetako Abesbatzaren emanaldia izango da eguerdian eta jarraian salda banatuko da.

◆ Artzamendiko garaiek

Udalak, Artzamendi kalean 75 urteko azalera eskubideko errejimenpean dituen sei garaiek saltzeko enkante publikoa argitaratu du. Lizitazio tipo, 1.000.000 pezetatan finkatu da eta proposamenak aurkezteko epea, azaroaren 21ean bukatzen da. Argibideak Irizar Etxean.

◆ AEKko zozketa


AEK Eguneko zozketan zerbaki hauek izan dira sarituak: 24.115, 923 eta 25.761. Boletoen jabeek bidaia bana eskuratuko dute.

◆ Gazte ikastaroak

JARDUNeko Gazte Taldeak argazkilaritza, larrua eta taila ikastaroak antolatu behar ditu. Interesateak JARDUNera (76 08 19) deitu dezakete.

◆ Auzoetako Korreok

Auzoetako Korreotarako oposizioak gertatzeko bilera egingo da asteartean 7etan Mariaren Lagundian.



Maria Jesus Ugalde bergarar sopranoa Capilla Peñafloidako partaidea da.

Capilla Peñafloidaren emanaldia hurrengo ostiralean

Barroko eta Berpizkunde aroko musika Novedadesen

Datorren ostiralean, hilak 25, Capilla Peñafloidak kontzertua eskeiniko du Novedades aretoan 22.30etan, Udazken Kulturalaren programaren barruan. Talde hau 1985ean (Peñafloidako Kondea hil zeneko bigarren mendeurrenean) sortu zen gaur egun taldeko zuzendaria den Jon Bagüés musikologoaren eraginez eta ordutik barroko aroko musika espainiara aztertu eta jotzea izan du helburu, Estatu guztian zehar kontzertuak emanez. Era berean, Nazioarteko hainbat jaialditan ere parte hartu dute eta 1991tik Berpizkunde aroko musika ere lantzeari ekin diote.

Maria Jesus Ugalde bergarar sopranoa eta David Azurza Orfeoiko zuzendaria taldeko partaideak di-

tugu eta ostiralean, organo, klabe eta zello barrokoaren laguntzar abestaldeak eta bakarlariek, besteak beste, honako lan hauek eskeiniko dituzte: *Hymnus de Comunión* (Anonimoa, XVI. mendekoa), *Oración Inefable Sacramento* eta *Nunciatio dimitis* (Pedro de Tafalla), *Lauda Jerusalem* (Joaquin Asiain), *Salve Regina*, *Magnificat* eta *Salmo "Dixit Dominus"* (Juan García de Salazar), *Miserere* eta *Dolores y Gozos a San José* (Conde de Peñafloída), *Recitado y Aria al Santísimo* eta *Tota Pulchra es Maria* (Fr. Augustin de Echeverria), *Motete a 8* eta *Ofertorio a 8* (Juan Andres de Lombide) edota *Magnificat* (Antonio Soler).

Kontzerturako sarrerak 700 pezetatan salduko dira.

ONENA

TINTATEGIA

Barrenkale, 29 BERGARA

KONDE



Burdiñate, 1 ☎ 76 02 57

PANADEROKUA

ARRANO



Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA

Erdiko kale, 19
Tfnoa: 79 17 92
ARRASATE

MERCHE

**Parrokia
ondoan**



Andrazkoentzako
moda guztia.

Beroki, txaketo,
euritako, e.a.etan
kolekzio zabala.

Baita taila
bereziak ere.

Haurdun
dauden
neskentzat
egun-
eguneko
moda,
oraingo
neskaren
estilora
moldatua



**Moda
gaztea,
taila
bereziak
barne**

Laura

Erdiko kale, 30
Tfnoa: 79 05 80
ARRASATE

Elikadura

Kontserbatzaileak

- Zeintzuk dira elikagaien kontserbatzaileak?

- Elikagaien kontserbatzaile moduan erabiltzeko baimenduta dauden substantziak mota hauetakoak dira: azido p-hidroxibentzoikoen esterrak (PHB), nitritoak, nitratoak, sulfitoak, baita azido bentzoikoa, formikoa eta sorbikoa ere, eta hauetatik eratorritako gatzak. Haez gain sustantzia natural batzuk, hala nola, azido karbonikoa eta azetikoa.

- Zein betebeharrak daukate kontserbatzaile horiek?

- Kontserbatzaile kimiko guzti hauek gobernuaren baimena behar dute eta poteetan idatziz agertu behar dira. 200etik 290era zenbatuta daude E bat aurrean dutelarik, nahiz eta zenbatzerakoan zenbaki batzuk salto egin, beraz, zenbaki guztiak ez dira kontserbatzaileenak.

- Guztiz fidagarriak izango dira...

- Iritzi asko dago baimendutako substantziak kaltegarriak diren edo ez erabakitzerakoan. Jakin badakigu, sulfitoak, esa-

te baterako alergia batzuk sor ditzaketela; baina tratatu gabeko elikagaiak edo bakterioek, legami-onddoek edo lizunak infektatutako janariak askoz arriskutsuagoak dira, batez ere, onddoek sortzen dituzten aflatoxingatik, hauek baitira orain arte ezagutzen diren kantzerigenorik (minbizi sortzaile) arriskutsuenak.

- Zer egin dezakegu?
- Erabili ohi diren



NORA AZKARATE
(Elikagaien Zientzia eta Teknologia ikaslea)

kontserbatzaile kimikoak gutxitu egin daitezke hauen eraginkortasuna murriztu gabe. Esate baterako, adobatan erabiltzen den gatzetan dauden nitrito batzuren ordean C bitamina erans daieke haragiei. Kontserbazioa hobetzeaz gain,

kantzerigenoak diren nitrosaminen sorkuntza oztokatzen du. Halaber, eraginkortasun berdintsua lortzen da kontserbatzaileak proportzio txikiagotan erabili eta bestelako prozedura fisikoekin konbinatzen badira, bai hozkuntza (errefrigerazio) sistemekin, pasteurizazioarekin, etab.ekin.

- Badago beste metodorik?

- Janari batzuk kimikaz tratatu barik ere janzahal izango lirateke, beste neurri batzuk hartuta, etengabeko azterketa mikrobiologikoak eginda, produkzio-kateak sarri garbituta eta produktua azkar merkaturatuz. Kontserbatzeko lau metodo daude:

- Kontserbatan: potak itxi ondoren 100-116 gradutan jartzen dira 10-30 minututan, eta bero horrek mikroorganismoak eta espora batzuk hil egiten ditu.

- UHT: esnea 140º tan jartzen da 6 segundotan eta aseptikoki eta hutsean ontziurutzen da.

- Liofilizazioa eta hidratazioa: produktua bapatean izoztu zeropetik 80ºtan jarrita eta ondoren kamara hutsean lurrundu. Izoza bapore bihurtzen da, likidotik pasatu gabe.

- Eta azkenik, hoztu eta izoztu, ketu, gazitu, enbalatu etabar.

"Kontserbatzaile kimikoak gutxitu egin daitezke eraginkortasuna murriztu gabe"



Kontserbatzaile kimikoak poteetan idatziz agertu behar dira.



KORTA-ZAR
Txokolategia
Pintxo eta ogibitartekoen
espezialitatea

OSTIALETAN GOIZKO
9ETATIK ZABALIK

Barrenkale, 16 ☎ 76 20 62

ARREGI
Eraikuntza
materialeak

Bilgetia Tellerian, Labegaraietan.
Tfnoa: 76 27 93



Artsalde on bat pasatzeko aukera ematen dute eskulan ikastaroek.

Eskulanak:

Denborapasa eta ogibidea

Arantzazu Aranzabal eta Fernando Sanchez Bergaran jaio arren, duela bi urte, Gatzagara joan ziren keramika tailer bat martxan jartzeko. Gaur egun tailerrek aurrera egin du eta bi gazte hauek eurek egindako esku lanez bizi dira. Enpresa eratu baino lehen 3 urtez Iruñan izan ziren buztin langintza ikasten, hortik Manise-seko eskolara (Balentzia)

Urteak pasa ahala eskulanek ogibide izatetik hobby izatera pasa dira. Gure herrian badira, batez ere emakumezkoak, astean zehar denbora modu erakargarri batean pasatzeko eskulanak ikasten dihardutenak. Halere, oraindik ere badira, artisautzatik bizi diren pertsonak. Hurrengo orrietan eskulanen bi aspektuak ezagutzeko aukera izango duzue.

joan ziren eta "errebotez" Gatzagan amaitu dute. "Ikasketak amaitu genituenean tailerrak mon-

tatzeko dirulaguntzak zeuden galdetzerakoan ginen Diputazioara, eta hortik Mankomunitatera

bidali gintuzten. Han Gatzagan bizi den atxalbaitar batekin elkartu ginen eta esan zigun Gatzaga bultzatzen ari zirela eta hemen gaude" dio Aranzabalek. Euren tailerra, Urgarri, Dorletako amabirginaren ermitarako bidean dago, gatz fabrikaren ondoan hain zuzen ere.

Neguan zehar, salmentak jeisten direlako, keramika ikastaroak antolatzen dituzte eta udan, berriz, feriaz feria ibiltzen dira euren produktuak salduz. "Orain arte esperientzia ondo doa. Ez dakigu nola moldatuko garen neguan, baina ez dugu ixteko asmorik" dio Aranzabalek.

Tailerrean danetik ikus daiteke, pitxarrak, hautsontziak, erlojuak, platerak..., halere gehien saltzen duten produktua kaferako jokuak dira. Normalean jendeari saltzen diote, baina Nafarroako dendetan ere saltzen dute. "Nafarroako iparraldean ditugu bezerorik onenak. Udan Bertizen biru bilabeteko erakusketa iraunkorra jartzen dugu. Gipuzkoatik gu bakarrik joaten gara eta muga pasatzen duten frantzesei saltzen diegu gehienbat" dio Aranzabalek.

Pazientzia derrigorrezkoa

Eskulanak egiteko badi-rudi esku berezia izan



DEBA
GARAIA
INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIA

Arrasate / Bergara / Elgoibar
T. Aranzadi, 2 behea ☎ 76 21 80-76 06 37

ARDATZA
Brikolaketa

Masterreka, 4 behea ☎ 76 18 93

- Ateak eta zokaloak
- Horma armairuak
- Sarrailak eta manilak
- Koadroen enmarkazioak
- Era guztietako moldurak
 - Apalak
 - Kajoiak



Fernando Sanchez eta Arantzazu Aranzabalek orain dela bi urte sortu zuten artisautza lantegia Gatzagan

behar dela, halere, bi bergarar hauek adierazi digutenez, eskulanak egiteko ez da beste munduko gauzarik behar. Hori bai, pazientzia izatea derrigorrezkoa da. Baina buztinarekin gauzak egiteko erabiltzen den teknika lana erraztu edo zaildu dezake. "Moldeekin lan egitea erraza da, gero dekorazioa eta modelazioa zailagoa da. Baina egunez eguneko lanarekin teknika guztiak ikas daitezke" dio Sanchezek.

Euren lana aurrera eramateko material mota ezberdinak erabiltzen dituzte, buztin gorria, gre-

sa, portzelana etb... Prozesu guztia eskuz egiten dute eta pintatu ere eskuz egiten dute. Horrek euren produkzioa mugatua izatea dakar eta kompetentzia gogorra dute enpresa handien aldetik. "Ordizian gure ondoan Cartujako (Sevilla) piezak saltzen zituen tipo bat jarri zen eta berarekin lehiatzea ezinezkoa

zen. Guk pitxarrak 2.500 pztan saltzen genituen bitartean, eurek pitxar berdina askoz ere merkeago saltzen zuten" esan digu Sanchezek.

Hori ikusirik teknika berriak landu behar izan dituzte eta esate baterako, Japonetik inportatutako "Racus" teknika erabiltzen dute erlojuak egiteko. Teknika hori ezin

daiteke egin lantegietan eta eskuz egiten dutenez jendeari asko gustatzen zaio.

Halere, Gipuzkoa mailan ez dute kompetentzia handiegirik. "Ez dugu kompetentzia handirik, baina jende asko dago Udaletako tailerretan aritzen dena eta horiek hilabeteko kuota txiki bat ordaintzen dute, argia ere debalde dute eta egiten dituzten piezak dendei saltzen dizkiete. Horrek min ematen digu" adierazi digu Aranzabalek. Lan orduari dagokionez, lantegia goiz eta arratsaldean dute zabalik eta aitortu digutenez oraindik ez dute bi urte hauetan oporrik hartu.

Eskulanak jendea ezagutzeko

Bestalde duela bost urtetik hona, Udaleko zerbitzu sozialak antolatuta emakumeek eskulanak ikasteko aukera dute. Gaur egun 50 emakume astean zortzi orduz, eskulanean dauden teknika ezberdinak ikasten aritzen dira. Ikastaroak urte osoan zehar irauten

"Nafarroako Iparraldean ditugu bezerorik onenak eta udan Bertizen hiru hilabeteko erakusketa iraunkorra jartzen dugu" ARANTZAZU ARANZABALEK

YAZKI
UME GAZTE
Neska eta mutil
 Irizar, 3 Ibargarai, 8
 ☎ 76 16 14 ☎ 76 54 73

*Kirola egiteko
 behar den guztia*
BOLINTXO
 Ibargarai, 10
 ☎ 76 38 32

EDURNE
Merzeria- Lenzeria
 Irala, 5 ☎ 76 25 69



Gatzagako tailerrean, hiru labe ezberdin dituzte buztina gogortzeko.

bora librean. "Ikastaroaren helburua emakumezkoen artean denbora librean euskara erabiltzea da eta horretarako eurek gustokoak dituzten bainbat ekintza antolatzeko ditugu" dio Eba Alberdi, Jardun elkartearen kidea.

Euskaraz aritzeaz gain, eskulanekin emakumeek erlajatzeko eta euren arteko harremanak sendotzeko aukera ere badute. "Eskulanak egokiak dira erlajatzeko eta gainera etxea apaintzeko gauzak ere egin daitezke. Esate baterako lanparak, paragueroak, kutxak eta horrelako gauzak egiten ikasi daitezke" dio Dorleta Mendibil, ikastaroko irakaslea.

du eta Justi Asensio, irakasleak adierazi digunez edozein emakumeek har dezake parte ikastaroetan. "Normalean 35 urte-tik 50 urtera bitarteko emakumeak etortzen dira eta denetatik egiten dugu, mazeteroak, kortinak, hamakak, lanparak etb."

du datorren hiru hilabeteetarako. Ikastaroaren helburua alde batetik egurra, metala, eskaiola,

estainua eta seda lantzen ikastea da eta bestetik emakumeek euskara erabili dezaten euren den-

Teknika ikasteaz gain emakumeek ikastaroan lagun berriak egiteko aukera dute. "Gure artean giro ezin hobea sortzen da. Hiru hilabetero afaritxo bat egiten dugu eta kurtsu amaieran bidai bat ere egiten dugu" dio Asensiok.



JARDUNEK antolatutako ikastaroan diharduten emakumeek eskulanak eta euskara lantzen dute.

Eskulanak eta euskara

Jardun elkartearen emakume taldeak ere eskulan ikastaro bat antolatu

SIRIMIRI

jatetxea

PINTXO BEROAK, EGUNEKO MENUA, KARTA.

Barrenkale, 3 ☎ 76 59 19

MUGICA

GOXOTEGIA



- Pastelak
- Errellenoak
- Tostoiak
- Tartak

Artekale, 3
☎ 76 10 34

AGOITZ

Tapizdenda

San Lorentzo, 25 BERGARA
Tfnoa: 76 11 58

Bergarako promesa AGUSTIN ARANZABAL:

Agustin Aranzabal, 20 urteko bergararra Errealeko jokalaria bilakatu da aurten Sanse-n ere tarteka jokatuz

- Nola joan zaizu aurtengo denboraldia?

- Pentsatzen nuen antzera, ondo, Realeko gorenko mailan partidu batzuk jokatuz.

- Zein postutan jokatzen duzu?

- Atzekaldean ezkerreko hegalean jokatzen dut. Hasieran infantiletan erdikaldean jokatu banuen ere.

- Zein da zure alde-rik onena?

- Nire ustez, nire jokoa duen alderdirik onena, aurrera jo eta gero aurrelariak golak egiteko erdiratze onak egitea.

- Eta hobetu beharrekoa?

- Defentsan asko hobetu behar dut; dena den, eskuin hanka eta burua hobetu beharko ditut.

- Atzerritarrak fitxatzearen aldekoa zara?

"Momentu honetan Realeko jokalaririk konpletoena Imaz da"



Agustin Aranzabalengan konfidantza duela erakutsi du Toshack-ek.

- Nik ez dut ondo ikusten baina Errealeko atzerritar jatorrek gure jokoa asko hobetzen dute.

- Realeko jokalaririk onena?

- Momentu honetan jokalaririk konpletoena Imaz dela esango nuke, beti atzean eta aurrean dabil eta baloi asko berreskuratzen ditu.

- Zure postu berdineko zein jokalaritan fijatzen zara?

- Fijatu denetan, baina

Lasa da gehien gustatzen zaidan jokalaria.

- Nola ikusten duzu gaur egungo Realaren egoera?

- Azkenaldian nahiko joku ona egiten ari da eta gol aukerak sortzen badira, Realak gorantz egingo duela uste dut.

- Etorkizunerako ze asmo dituzu?

- Dagoeneko Errealean partidu batzuk jokatu ditudanez, nere asmorik haundiena Errealean titular moduan jokatzea da.

GAMELUA ETA ZALDIA

Barre egin nahi zenuen baina ez zenuen ziorik;

Negar egin nahi zenuen baina ez zenuen malkorik;

Garrasi egin nahi zenuen baina ez zenuen abotsik;

Burrukatu nahi zenuen baina ez zenuen indarririk.

Suge zuriaren morroi infernuko paradisuan.

Azken atea itxi zen eta... Ez, ez zinen askatu ez, ez zara askatuko.

AGUR

esaiezu agur txoriei, loreei,...

AGUR

esaiezu agur ikusten ez zenituen gaiza guztiei.

AGUR,

ezaizeu agur gelditzen zaizkizun azkenengo minutuei.

OSANE JIMENEZ

Amets beroak

Esan zigutenean balleta ikusi behar genuela neure buruari esan nien: "*Hau siesta bota behar dudana*". Baina ez nengoen zuzen. Guztiok edo gehienok ez genuela ulertuko pentsatzen joan ginen eta nire kasuan horrela izan zen.

Polita eta ikusgarria izan zen, beharbada horrelako zerbait ikusten nuen lehenengo aldia zelako, baina hasieran ikusi nuen ez nuela ulertuko.

Dantzan hasi eta berehala antzeman zen dantzariak lan gogorra izan zutela hura lortzeko eta espresatzeko abilezia zutela.

Hasiera batean itsasoaren ametsa agertu zen eta honekin batera nahiko musika lasaia. Nerekiko pentsatu nuen; "*Balleta izanda normala!*" Baina gero konturatu nintzen ez zela horrela.

Ikuskizuna aurrera zihoan bitartean, musika asko aldatu zen eta azkenerako oso musika atsegina eta antzerki eta dantza ondo moldatua ipini zuten.

Obraren izenburua entzunda nahiko argi zegoen zer motatako dantza izango zen, baina nik uste nuen eskola ikasleak joatera pixkat lasaia goa izango zela, eta nire ustez pertsona helduentzako aproposagoa izango litzateke, baina ondo dago batzuetan horrelako gauzak erakusten badizkigute.

Nik, dantzari buruz zerbait ikasi dut, zer esan nahi zuen zehatz-mehatz ulertu ez arren.

AMAIA

ISTRIPUA

Autobusetik jaitsi gara eta izugarritzko jende pila dago. Jende artean -bulzaka- sartzen gara.

Nire lagunetariko bi motoan dozela ikusten ditut eta bapatean tutorearen aurka txoke egiten dute. Nire lagun Unai, bapatean altsatu eta hau esaten dio tutoreari:

- Zergatik jo gaituzu? (Unai).
- Ez, ez, zuek ni jo nauzue. (Asierrek).
- Bizkorregi zentozen! (Andonik).
- Zuek ordaindu beharko didazue autoaren erreparazioa. (Asierrek).
- Ez, zuk betaurrekoak jarri gabe zenituen. (Unai).

- Eta autoa gidatzeko behar beharrezkoak dituzu. (Andonik). Bai Asier eta bai bi mutilak gogor hasi ziren eztabaidan bakoitzak bereari eutsiz eta azkenen zera erabaki zuten: VEREDICTO saiora joatea. Telesaioa bukatu ondoren, epailearen azken hitzak hauek izan ziren:

- Betaurrekorik gabe gidatzearen motoak jasandako istripuaren ondorioak ordaindu beharko dituzu. - Epaileak.
 - Baina nik betaurrekorik gabe oso ongi ikusten dut eta ez dut motoaren erreparaziorik ordainduko. (Asierrek).
 - Ba, legeak betaurrekoak jarrita gidatzera behartzen zaitu, beraz, zeurea da erru guztia. (Unai).
 - Hau da nire erabakia eta Asierrek ordaindu beharko du motoaren erreparazioa. (Epaileak).
 - Beraz, saio hau amaitutzat ematen dut. (epaileak).
- Modu honetara amaitu ziren motoaren komediak eta Asierrek, hau da, Unai eta Andoniren tutoreak, ordaindu behar izan zuen ikastola aurrean izan zuten istripuaren ondorio ekonomiko guztiak, bai motoa eta bai kotxea.



% 0,7a herrialde pobreei ematearen alde ala kontra zaude?



Mari Karmen Arcaraz
51 urte, langilea

Alde. Ni ez naiz aprosena horri buruz hitzegiteko baina gehien daukatenei uste dut laguntza ematea exijitu behar zaiela.



Eugenio González
63 urte, langilea

Nik ondo ikusten dut laguntza ematea baina ez dakit zein izan daitekeen metodorik egokiena hori lortzeko.



Mariasen Ariznabarreta
41 urte, etxeakoandrea

Beharra daukanari laguntza eman behar zaio. Gobernuak Errenta Aitorpenetik kendu beharko lioke zati bat horretarako baimena ematen dionari.




Angel Aiastui
68 urte, jubilatua

Baina nork administratzen du gero diru hori? Nere ustez borondate ona duenak eman dezala baina inola ere ez behartuta.



Arantxa Laskurain
51 urte, langilea

Ondo iruditzen zait, hobe armamentuan eta horrelakoetan gutxiago gatzatzea eta behartsuei laguntzea.



Salvador González
39 urte, langilea

Alde nago, 0,7 horrek herrialde horien garapena suposatu lezake eta, horren ondorioz, guztion intereserako elkartrukeak lortu ahal izango genituzke.



Bizkaia Etorbidea, 1
etxabea



Tfnoa: 77 14 24

BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOAK

Larrañaga

San Pedro, 9 - Teléfono. 761051

R. S. I. 209374 - 55

BERGARA



Argi gorria

Azkenaldian euskara ahoz-aho ibili da eztabaidagai bezala. Gainera gehienetan ixarrerako. Gogora ditzagun, bestela, P. Mosquera, J. Mayor Oreja, etabarrek botatakoak. Gainera zenbaitzuk (Lázarro Carreter...) argi gorria piztu dute gaztelania hiltzorian uste dutelako. Beldur dira "inperioko hizkuntza" ez ote den galduko zenbait lurraldetan. Hala ere, egunorokoa ikusiz bestelako eritzikoa naiz: gaztelera tinko eta osasuntsu dirau. Ez da gauza bera gertatzen euskararekin.

Zenbait arlotan euskara berreskuratzen asko aurreratu bada ere, gure hizkuntza gaiso agertzen da.

Gaisotasun hau euskararekiko nire maila apalean sentitzen dut: askotan birritan irakurri behar, hiztegia hartu behar ulertzeko, e.a. Kalera irten eta gaisotasun hori larritzen da leku askotan gaztelera delako nagusi. Lantokiak, nire kasuan, euskaraz bizitzeko parada ematen dit. Hala ere, nire zoriona paradoxa batek mintzen du: ikasle askok euskara lanerako (ikasteko) erabiltzen dute, baina bizitzeko (gozatzeko, dibertitzeko...) gaztelera. Arratsaldez alabaren bila; eskolume mordoa ikastetxeetatik irteten; euron artean ia denak euskaraz; guraso edo zaintzaileak kanpion zain; haur batzuk hauekin gaztelera mintzo dira; zain daudenen artean, bestalde, ia denak gaztelera (eta ez, euskara eza gutzen ez dutelako). Beranduago, erabat ilundu eta eskolaumeak isildu direnean, gaztelaniarekin egiten duzu topo gehienetan. Gazteek maiz bisitatzen dituzten lekuetan gaztelera da nagusi. Ondoren, auzoko jabekideen bilera eta, han ere, nahiz eta batzutan euskaraz hitzegin, gaztelera... Gero etxera, pentsatuz gure euskal-ghetto partikularrean izango genuela euskaraz bizitzeko beta. Baina, keba. Piztu telebista eta hogeitaz kate ikusteko aukera. Horietatik euskaraz bat bakarra, eta gainera tarteetan iragarkiak erdaraz. Gaztelera, berriz... Gauak atsedena emango dizulokan ohera eta, hantxe ere amets txarra: ez omen dut stop-ik egin eta ertzain bikote batekin jota ke ari naiz gaztelera.

Nork piztu behar du benetan hemen eta orain argi gorria?

Xabier LARRAÑAGA



Noiz arte

Ikasturte berria, arazo zaharra. Hau da Euskal Herriko Unibertsitateko kontua. Eta badirudi ez dagoela arazoei konponbidea emateko inolako gogorik. Ez da makala gero beti berdinez aritu behar izatea!

Euskal Herriko Unibertsitatea gaur egungo gizartearen ispilu dela esan genezake. Aste hontan bertan gai desberdinen inguruan egon da saltsa "jakituriaren etxean". Alde batetik, irakasle despedituen borroka dugu oraindik. Ez dakit ziur zenbat urte daramatzen kontu honekin, baina ez dira gutxi. Eta bitartean ikasleak irakasle faltan. Hau ironia! Kanpus barruan ikasleak irakasle eske borrokan, eta kanpoko atean irakasleak ikasle eske. Eta bitartean? Non ote da Goiriena jauna bitartean? Agian intsumisoen kanpin dendak jasotzen laguntzen ari da. Edo beharbada hiru koloretako furgoi horretako batean dago ordagoak joaz. Baina musean ere erderaz arituko dira, "jakituriaren etxe" honetan euskaraz ez bait du lekurik. Euskal Herriko Unibertsitatean erdara da jabe eta euskara honen morroi. Eta gure ikasketak euskaraz egin nahi dugunok ez dugu lekurik etxe santu honetan. Eta gabon ostertate irakaslerik ez baduzu, zure errua. Hurrengoan erdal adarrean matrikulatu zaitez.

Baina hori bai, zure matrikula puntualki ordaindu beharra daukazu, noski. Klaserik gabe baina dirua soltatu behar, Protecsa-ko langileek ere beraien soldata jaso beharra dute eta. Kanpusa, segurtasunaren izenean, labezomorroz josita daukagu azken urtean. Zenbat diru joango ote da guzti hau ordaintzen? Eta bitartean euskal irakasleak kontratatuzko dirurik ez dagoela argudiatzen dute. Eta beka sistema aldrebes hau dela eta norbait bere ikasketak egin ezinean geldituko da. Segurtasunaren izenean.

Ainhoa LETE

Amets



- HERGO eta HOBBY karabanak eta RIVIERA autokarabanak
- Zango erremolkeak
- Era guztietako kanping eta karabanentzako osagarriak

Informazioa: ☎ 76 25 92 / 78 19 50

AMETS TAILERRAK

Berezano auzoa OÑATI



Barrenkale, 4 ☎ 76 18 14

LAZKANO

Oinetakoak

Barrenkale, 15

☎ 76 25 03

Barrenkale, 23 ☎ 76 29 65

ederTU
ALTZARIAK



Parranda eguna


1972an jaiotako bergarrek bazkaria eguztuen aurreko larunbatean Oxirondo elkartearen Guztira 50 lagun inguru bildu ziren eta argazkian zintzo-zintzo agertzen badira ere, jakin badakigu juerga ederra eguztutela primerako bazkaria izan ondoren. Umoretsu eta ederra pasa zuten elkarrekin eta gau-giroan ere nabaritzen zen bai beren presentzia. Hurrengo urtean berriro bitartean, eutsi umoreari!

SIDA gaitza ezagutu

Aste honetan zehar **"HIESaren Sentiberatze Ihardunaldiak"** izan dira Bergarako Kultur Etxean. Bertara hurbildu direnek HIESaren arazoa hobeto ezagutzeko aukera izan dute antolatutako erakusketa, bideo eta zine emanaldi edota hitzaldiei esker. Honekin lotuta, HIES Ekimenak (Deba Garaiko HIESaren aurkako Batzorde Herritarak) dei egin du abenduaren 1ean ospatuko den HIESaren Nazioarteko Egunean antolatuko diren ekintzetan parte hartzeko. Elkartasuna adierazteko herritar eta instituzioei lazo gorri batez apaindutako izarak balkoietan zintzilik jartzeko eskatuko zaie.



Astean zehar mundu osoko kartel erakusketa ikusgai izan da Kultur Etxean.




**GAZTELU
BURDINAKI DENDA**

Mintegi, 1 Tfnoak: 76 32 48 / 76 34 50 BERGARA

Sugoi

**ERLOJUAK, ARTIKULO
ELEKTRONIKOAK,
KALKULADORAK...**
Irizar pasealekua, 2 behea
☎ 76 59 54 BERGARA



Gerra garaia gogoratuz

Ramon Azkarate eta Xabier Aranburu bergararrak Oñatin errodutzen ari den **"Fiesta"** filmean extra modura aritu dira. Astebetez

Oñatiko Unibertsitatean izan dira goiz eta arratsaldez toma batzuk egin ahal izateko; Ramonek (ezkerreko argazkian) fusilatzaile papera egin du eta Xabierrek (eskuman), berriz, "requeté"arena. Ramonen hitzetan, *"esperientzia polita izan da baina azkenerako pixkat aspergarria egin zaigu"*. **Oihana Gardokik** ere txofer lanak egin ditu errodaian zehar.

Txotxongilo ibiltariak

Aste honetan Bartzelonan **"Taun-Taun Show"** eta **"Bi kate"** lanak antzeztu ondoren, **Taun-Taun txotxongilo taldeak** bi emanaldi eskeiniko ditu egunotan Eskoriatzan eta Donostian. Bihar, larunbata, Eskoriatzako Irakasle Eskolan izango dira arratsaldeko 7.30etan **"Taun-Taun Show"** lanarekin eta asteartean, berriz, Donostiako Principal Antzokian **"Makinatu"** azken lana aurkeztuko dute 22.30etan. Estreinaldia egin zutenetik aldaketak egin dituzte lan honetan eta Taun-Taunekoak pozik azaldu dira azken emaitzarekin.



Zertan dihardute ba?



Gurutzne Elko

25 urteko bergararrak extra lanak egin ditu ETB-1eko "Goenkale" saioan. Gurutzne casting proba batzutura aurkeztu eta "Goenkale"ko bi kapitulotan lan egiteko aukera izan du. Bere hitzetan, *"esperientzia oso polita izan da; gainera beti gustatu izan zait mundu hori, Institutuan ere teatro pixkat ikasi nuen. Horretaz gain, serie honetan giro eta jende oso jatorra zegoen, zain nago ea berriro deitzen didaten..."*. Gurutznek egindako lana gaur (hilak 18) emango duten kapituluak ikusi ahal izango dugu. Gogoratu bestalde aste guztiko kapituluak larunbatean errepikatzen direla.

EXLUKUN
BEREZITASUNAK
 Fraiskozuri, 6 ☎ 76 51 62
 BERGARA

ZABALETA ERROTULOAK



Mota guztietako errotuloak Fatxadak, eskaparateak...
 Amillaga (Gasolindegi ondoan). Tfnoa: 76 57 34

Alazne Irazabal

Alazne Irazabal 29 urteko bergarra Mizpirualde Erresidentziako Gizarte Laguntzailea dugu azken 4 urtetan. Aste honetan bertan omenaldi astea eskeini zaie bertako 116 zaharrei.



"Erresidentzian danetatik dago baina orokorrean pozik daude eskeintzen zaien zerbitzuarekin. Emakumeak gizonak baino aktiboagoak dira. Txikitan misionera izan nahi nuen. Bidaia bat? Afrika beltzera"

- Zeintzuk dira zaharren mehatxuak?
- Osasuna eta bakardadea. Bestela ez da hain txarra zahartzaroa.
- Erresidentzian ze moduz bizi dira?
- Danetatik dago baina hemengo zerbitzuekin behintzat pozik.
- Nolakoa da egun bat bertan?
- 8etan jeiki, gosaldu, yoga, meza eta bazkaria. Eta arratsaldez merienda, ekitaldiak eta afaria.
- Zer botatzen duzu faltan?
- Medikatu bat.
- Zaharrak lehen baino hobeto zaintzen ditugu?
- Bai.
- Erresidentzietan lehen ala orain zahar gehiago?
- Portzentaia berdina da. Gehiengo familiarekin bizi da.
- Zaharren afizioak?

- Kartak, pasiatu eta telebista.
- Emakume eta gizonen artean desberdintasunik?
- Emakumeak aktiboagoak dira.
- Umore ona ala txarrekoa zara?
- Normalean onekoa.
- Eta umore txarrez zaudenean?
- Buelta bat ematera joan.
- Zaharrek piroporik botatzen dizute?
- Bai.
- Laneko gauzarik txarrena?
- Askotan zaharrek ekintzetan partehartzea zaila izaten da.
- Bidaia bat nora?
- Afrika beltzera.
- Zer izan nahi zenuen txikitan?
- Misionera. Gizarte zerbitzuan lan eginez erdi-misionera naiz...
- Astebukaeran zer?
- Mendira joan eta lagunekin irten.
- Inguruko mendi bat?
- Urbia.
- Kirolik egiten duzu?
- Mantenimendu gimnasia.
- Filme bat.
- Fresa y chocolate.
- Liburu bat?
- Babilonia (Joan Mari Irigoien).
- Zein musika gustatzen zaizu?
- Jazz-a, Bill Evans esaterako.
- Negar azken aldiz?
- Atzo bertan, hemengo zahar bat emozionatu zenean.
- Noiz arte bizitzea nahi?
- Osasunak agindu arte.

FERNANDEZ

**Oihal puskek
Oihalak**

San Antonio, 3 Ibargarai, 2
☎ 76 22 93 ☎ 76 53 22

Gaspar

JATETXEA, TXOKOLATGIA,
SELF-SERVICE-A

Barrenkale, 31 Tfnoa: 76 20 02 BERGARA

IBARGUREN PENTSUAK

**Biona pentsuen biltegia
Bioter produktoak eta haziak**

San Pedro, 3 Tfnoa: 76 23 79 BERGARA

anezka

Espaloia, 8 ☎ 76 59 25

**OIHALAK
LENTZERIA**

BONOFOTOA



M. A. ELKORBEREZIBAR



Arantzazu Juaristi

Arantzazu Juaristik jaso du aste honetan BONOFOTOko saria, joan zen astean egindako galdera berak asmatu du eta. Argazkian agertzen zen Errenazimendu garaiko ateondo Platereskoa zein kaletan zegoen galdetzen genizuen eta erantzuna: **Artekalea**. Beraz, aste honetako 10.000 pezetak **Arantzazu Juaristiri** eman dizkiogu. Zorionak!!

Zein da argazkian ikus dezakegun erreka izena?

Izena: _____ Abizena: _____ Tfnoa.: _____

Saria
10.000 pza.

Moztu paper hau eta
ekarri asteazken eguerdia baino lehen

BERRIGARA
Errotalde Jauregia Bergara

ETXEBIZITZA

Etxe berria salgai Osintxun. 100 m2, ganbara eta gara-jea. ☎ 76 48 63.

Pisua salgai Artekalen. ☎ 76 12 81.

Pisua salgai Osintxun. ☎ 76 50 05 (Josune).

Pisu txiki bat alokatuko nuke. ☎ 76 07 07.

Pisua alokatzen da Matxia-tegin. ☎ 76 46 15.

Pisua salgai Koldo Eleizalden. ☎ 76 56 90.

Garajea salgai Ibargarai kalean. ☎ 76 00 93.

Pisua alokatzen Zubiaurren. ☎ 76 13 85.

Garajea alokatzen da Koldo Eleizalden. ☎ 76 30 10.

Pisua salgai Artzamendin. ☎ 76 10 55.

Garajea salgai Zurradero 8an. ☎ 76 13 93.

Pisua salgai Zabalotegi-ko Torrean. ☎ 76 33 19.

Pisua salgai Martokua 18an. ☎ 76 00 51.

Pisua alokatzen da Irizar ibilbidean. ☎ 76 21 28.

Garajea saltzen da Ibargarai kalean. ☎ 76 44 25.

DENETARIK

Rneault 18 diesela salgai. ☎ 76 50 18.

Bainerarako hidromasaje aparailu, lehorgailu eta beste osagaiak. 90.000 pezeta. ☎ 76 53 90.

Karro-denda ia berria salgai. Prezio onean. ☎ 76 41 21.

Ski pare bat salgai (9-12 urtekoentzako). ☎ 76 16 92.

Lada Niva (SS-AN) eta **Ford Scort (SS-AD)** kotxeak salgai. ☎ 76 00 51.

Volkswagen Corrado kotxea salgai (SS-AG). ☎ 76 38 16 (gauetz).

Renault Express diesel kotxea salgai (berri-berria). ☎ 76 50 70.

Zibro estufa salgai (egoera onean). ☎ 76 12 86.

Fagor ur berogailua salgai (150 litrotakoa). Egoera eta prezio onean. ☎ 78 33 09 (Ainhoa).

Neska bat behar dugu Donostian (Egian) pisua osatzeko. ☎ 76 29 91.

Antezko kazadora bat galdu dut. ☎ 76 21 51/75 22 03 (Jokin).

LANA

Ingeles klaseak. ☎ 76 22 90 (Ainhoa).

BBB 3.eko matematikako klaseak hartuko nituzke etxean. ☎ 76 38 71 (Larraitz).

OHO eta ingeles klaseak. ☎ 76 17 18 (Jesus).

Etxebizitzak garbitzen ditut. ☎ 76 59 47 (Loli).

Ingeles Filolojian lizentziatua, ingeles klaseak. ☎ 76 26 63.

BBB eta LH klaseak. ☎ 76 24 31 (Eneko).

Neska batek etxeko lanak egingo lituzke. ☎ 76 53 21.

Matematika eta Zientzietako klaseak ematen dira. ☎ 76 06 50.

Fisika eta matematika klaseak. ☎ 76 24 57.

Lokalak garbituko nituzke. ☎ 76 51 76 (Leire).

Matematika klase partikularrak ematen dira. Zubieta 2, 1.goa eskuma (Jesus).

Erizain laguntzaileak zaharrak zainduko lituzke (gauetz ere bai). ☎ 76 47 71.

Ingeles klaseak ematen dira. ☎ 76 31 36.

Matematika finantziero klaseak. ☎ 76 05 43.

Zaharrak zaindu, etxeak garbitu, dendaren batean lagundu edo jostunen bategin lan egingo nuke. ☎ 75 24 47.

Haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 45 93.

Ingeles klaseak ematen ditut. ☎ 76 26 63.

DENA 100etik

ZURE OPARIENTZAKO

Simon Arrieta, 3

TOKI-ONA Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak / Txixizotzak
Kazolatxoak / Txabierroak

Matxiategi, 1 Tfnoak: 76 39 53

TABERNA ZAHARRA

Jatetxea

bazkari eta afariak

Tfnoa: 76 21 21
ANGIOZAR

iRUDI
Erlojudenda
Bitxitegia

Ibargarai, 2
☎ 76 51 65

IZADI PILI GISASOLA

Zurradero, 2
behea.
☎ 76 58 83

Santiveri

Osasun eta Dietetikan
espezializatutako zentrua

Eski denboraldia martxan

Pol-Pol Mendizale Taldeak Astun eta Candanchuko eski bonoen salmenta eta karneten berriztea martxan jarri du. Bonoak ateratzeko beharrezkoak dira 2 argazki eta N.A.N.ren fotokopia eta prezioak honako hauek dira: nagusientzat 44.000 pezeta eta gazteentzat 38.000 (Astun eta Candanchurako ateraz gero, 54.000 eta 46.000 urteko). Kuota eskuz ordaintzen dutenei Pol-Poleko bulegotik pasatzeko eskatzen zaie.



Errandoneak errebantxa hartu nahi izango dio Arretxeri zapatuan.

Arretxe eta Errandona aurrez-aurre larunbatean

Fernando Arretxe eta Iñaxio Errandoneak lau t'erdiko txapelketako final aurreko partiduetako bat jokatu dute larunbatean Bergarako Udal Pelotalekuan. Luzaidekoa eta Berakoa, Bergaran

izan ziren asteazkenean pelotak aukeratzeko eta biak gustora geratu ziren, Errandoneak pisu haundiagokoak aukera bazituen ere.

Partidua ikusgarria izango da, ez baita ahaztu behar Arretxe eta Errandonea eskuz banakako txapeldun eta txapeldunorde direla eta ziur gaude Errandonea errebantxa gogoarekin irtengo dela.

Arretxe eta Errandonearen arteko partidua ostean, Zezeaga eta Etxanizek Unanue eta Errastiren aurka jokatu dute. Bergararrak batera ikusteko aukerarik ez da izan azkenaldian eta zapatukoa aproposa izan daiteke.

KIROL KARTELDEGIA

► Futbola
Bergara-Pasajes
 Preferente maila.
 Igandea, 15.30. Agorrosin.
Bergara-Zestoa
 Lehen mailako jubenilak.
 Larunbata, 15.30. Ipintza.
Bergara-Aarrasate
 2. mailako jubenilak.
 Larunbata, 17.45. Ipintza.
Bergara-Zarautz
 Lehen mailako infantilak.
 Igandea, 9.45. Ipintza.
Bergara-Intxaurren
 Emakumezkoak.
 Igandea, 11.15. Ipintza.

► Eskubaloia
Bergara-Hondarribia
 Kadete mutilak.
 Larunbata, 16.30.
Bergara-Deusto
 Senior mutilak.
 Larunbata, 18.00.
 Biak Kiroldagian.

► Pelota
AFIZIONATUAK
Bergara-Zaldibiako Real Sociedad
 Kadeteak eta jubenilak binaka
 Ostirala, 22.00.
 Udal Pelotalekuan.

PROFESIONALAK
Arretxe / Errandonea (Lau t'erdiko txapelketako final aurrekoa)
Unanue eta Errasti / Etxaniz eta Zezeaga
 Larunbata, 16.30.
 Udal Pelotalekuan.

BAQUE PELOTA TXAPELKETA

Iker Muruamendiaraz eta Igor Gutierrez eskuz banakako Baqué Txapelketako azken fasea jokatzeko sailkatu dira, Deba Arroko lehen fasean onenak izan ondoren. Martitzenetik aurrera Oiartzunen jokatzeko hasiko den azken fasean, Muruamendiarazek Alzako Gastesiren kontra neurtuko ditu indarrak eta Gutierrezek Azeitiko Otaegiren aurka.

"K-2 94" DIAPOSITIBA EMANALDIA

Iñurrategi anaiek "K-2"ko diapositiba emanaldia eskeiniko dute astelehenean 7.30etan Artatse elkartearen.

ESKIKO MERKATU TXIKIA

Eski eta mendiko materialaren merkatu txikia zabalik izango da hurrengo astean, Pol-Polen, arratsaldeko 7etatik aurrera.

MUJIKA
Jantzidenda
 Barrenkale, 1 Tfnoa: 76 29 91

LIZAR
ALTZARIAK

 Dr Fleming, 5 ☎ 76 16 53


JAUJA KIROLAK
 Irizar, 2
 ☎ 76 14 95

Behobia-Donostia

91 bergarar heldu ziren Boulevardeko helmugara

91 bergarrek a-maitu zuten aurreko igandean Behobia-Donostia korrikaldia. Datu bitxi modura, aipatu, iaz baino bergarar korrikalari bat gutxiago heldu zela aurtengoan Boulevardeko helmugara.

Aurreko urtean bezala Basilio Aranburuk egin zuen denborarik onena ordubete 11 minutu eta 49 segundurekin baina iaz baino 27 segundu gehiago behar izan zituen Basiliok. Javier Morenok eta Aitor Erañak, bestalde, nabarmenki hobetu zituzten iaz egindako denborak.

Lehen emakumea (bost izan ziren guztira)

Maria Angeles Santxotena izan zen (1.38'.08"). Aipagarriak dira, era berean, Gaizka Jainaga (17 urte, 1.34'), Ander Aranburu (16 urte, 1.37') eta Gotzon Mendizabal (17 urte, 1.37') gazteek lortutako markak.

Beteranoen artean, Francisco Alonsok, 68 urterekin, 2 ordu eta 6 minututan korritu zituen 20 kilometroak eta Markos Labaienek (62 urte), berriaz, 2 ordutatik jeistea lortu zuen: ordubete eta 57 minutu.

Hala ere, denbora gehiago behar izan zuten ere beren meritua onartu behar zaie... Guztiei zori onak eta datorren urtean



Igandean parte hartu zuen bergarar korrikalari talde bat.

marka guztiak haustera!!

Aurten inoiz baino jende gehiagok hartu du

parte eta hortan behintzat kolaboratu dute guzti korrikalariak.

DONOSTIA-BEHOBIA KORRITU ZUTEN BERGARARREN SAILKAPEN EZ-OFIZIALA

POSTUA	IZEN-ABIZENA	DENBORA	POSTUA	IZEN-ABIZENA	DENBORA	POSTUA	IZEN-ABIZENA	DENBORA
97	Basilio Aranburu	1.11'.49"	2234	Jon Balentziaga	1.33'.16"	4797	Carlos Orbea	1.46'.08"
111	Javier Moreno	1.12'.57"	2243	Mikel Agirrezabal	1.33'.17"	4837	Iñaki Osa	1.46'.19"
119	Aitor Eraña	1.13'.10"	2410	Martin De Pedro	1.34'.09"	5174	Asier Madinabeitia	1.48'.19"
155	Roberto Zurro	1.14'.20"	2421	Mikel Uribealago	1.34'.11"	5180	Asis Iriondo	1.48'.24"
294	Salvador González	1.17'.50"	2448	Gaizka Jainaga	1.34'.20"	5191	Mikel Alberdi	1.48'.25"
341	Imanol García	1.18'.42"	2690	Imanol Elkoroberezibar	1.35'.39"	5257	Luis Mari Eguren	1.48'.50"
408	Fernando Ruiz	1.19'.35"	2784	Anton Barrutia	1.36'.09"	5608	Jon Larrañaga	1.50'.46"
481	Aitor García	1.20'.21"	2831	Jose Luis Fernández	1.36'.22"	5612	Angel Bideluze	1.50'.47"
571	Manuel Díaz	1.21'.30"	2848	German Alberdi	1.36'.25"	5613	Miguel Angel Larrañaga	1.50'.47"
670	Jose Manuel Díaz	1.22'.29"	3075	Ander Aranburu	1.37'.21"	5676	Ibon Bilbao	1.51'.16"
722	Jabier Ibarra	1.22'.59"	3113	Gotzon Mendizabal	1.37'.37"	5677	Xabier Larrañaga	1.51'.16"
754	Jesus Mari Marzo	1.23'.15"	3203	Maria Angeles Santxotena	1.38'.08"	5783	Amaia Agirre	1.51'.55"
815	Iñaki Zangitu	1.23'.44"	3272	Pedro Mari Imaz	1.38'.25"	5922	Alfonso Ena	1.53'.00"
879	Iñaki Andueza	1.24'.15"	3300	Felipe Iñarra	1.38'.35"	6019	Julian Zangitu	1.53'.56"
926	Arkaitz Arana	1.24'.39"	3385	Joaquin González	1.38'.56"	6056	Edu Mendibil	1.54'.15"
940	Luis Mari Alberdi	1.24'.44"	3396	Jose Antonio Larión	1.39'.01"	6274	Luis Mari Sotil	1.56'.15"
1208	Kepa Retolaza	1.26'.58"	3401	Roman Laskurain	1.39'.03"	6284	Jose Angel Amasorrain	1.56'.23"
1311	Jesus Mari Labaka	1.27'.41"	3423	Xabier Uribealago	1.39'.08"	6289	Iñaki Pedrejón	1.56'.26"
1347	Manu Gorospe	1.27'.58"	3723	Juan Martin Elexpuru	1.40'.45"	6340	Mikel Eguren	1.57'.08"
1584	Agustin Heis	1.29'.32"	3779	Carlos Telleria	1.41'.05"	6350	Markos Labaien	1.57'.10"
1727	Oscar Ortiz	1.30'.21"	3922	Isaac Lazkano	1.41'.34"	6351	Alex Labaien	1.57'.10"
1802	Bittor Rodríguez	1.30'.49"	4099	Mikel Etxeberria	1.42'.40"	6363	Jesus Mari Valgañón	1.57'.17"
1831	Ion Unamuno	1.30'.57"	4330	Juan Ignacio Alberdi	1.43'.40"	6365	Karmen Urrutia	1.57'.18"
1842	Javier Aldazabal	1.31'.00"	4414	Manuel Reifs	1.44'.03"	6445	Fernando Otaño	1.58'.12"
1912	Jose Mari Rubio	1.31'.23"	4415	Luis Mari Beistegi	1.44'.03"	6452	Marisabel Hurtado	1.58'.17"
1989	Mikel Etxaniz	1.31'.50"	4440	Jose Fermin Hernández	1.44'.11"	6555	Amaia Elorza	1.59'.55"
2004	Jose Arribas	1.31'.57"	4453	Iñaki Alberdi	1.44'.14"	6675	Karlos Zangitu	2.01'.39"
2006	Asier Elorza	1.31'.58"	4476	Ion Agirrezabalaga	1.44'.23"	6860	Francisco Alonso	2.06'.07"
2045	Aitor Muruamendiaraz	1.32'.20"	4521	Iñigo Iñurrategi	1.44'.44"	6949	Jose Mari Berasategi	2.09'.15"
2080	Ion Berasategi	1.32'.30"	4700	Eñaut Uriarte	1.45'.37"			
2229	Xabier Albizua	1.33'.15"	4793	Eduardo Jauregi	1.46'.07"			



Lehen maila

TALDEA	Punt.	J	I	B	G	G. Alde	G. Aurk.	A m u l t z o a
1. Errotagain	13	7	6	1	0	54	25	
2. Madura	12	8	5	2	1	34	26	
3. Angiozar	11	8	5	1	2	29	23	
4. Mongatxurra	9	7	4	1	2	35	17	
5. Bar Canalejas	9	7	4	1	2	27	17	
6. OH Zerezos	8	8	4	0	4	28	36	
7. Ogizun	5	7	2	1	4	22	28	
8. Uve Bikoitza	5	8	2	1	5	26	36	
9. Etxagi	4	8	2	0	6	38	41	
10. Guadalest	0	8	0	0	8	12	56	

TALDEA	Punt.	J	I	B	G	G. Alde	G. Aurk.	B m u l t z o a
1. Kabia	10	8	4	2	2	42	17	
2. Ozaeta	10	8	4	2	2	29	16	
3. Bildurbarek	10	7	5	0	2	23	19	
4. Arloteak	8	7	4	0	3	20	16	
5. Usoa	8	8	3	2	3	24	21	
6. Os Jardineiros	8	8	3	2	3	21	33	
7. Ufala	6	7	2	2	3	18	20	
8. Pagomendi	6	7	3	0	4	22	30	
9. Arkupe	6	8	3	0	5	24	44	
10. Revienta	2	6	1	0	5	8	15	

Bigarren maila

TALDEA	Punt.	J	I	B	G	G. Alde	G. Aurk.	C m u l t z o a
1. Nahikari Hooli.	12	7	6	0	1	16	8	
2. Kriterium	11	7	5	1	1	23	11	
3. A Ze Flaxa	10	7	5	1	1	35	15	
4. Krai	8	7	3	2	2	15	14	
5. Nekrofilikos	6	7	2	2	3	16	26	
6. Constr. Bergara	5	7	2	1	4	17	24	
7. Txipiron	4	6	1	2	3	11	13	
8. Paok San Juan	3	7	2	1	4	15	30	
9. Kriston P.	0	7	0	0	7	0	7	

TALDEA	Punt.	J	I	B	G	G. Alde	G. Aurk.	D m u l t z o a
1. Etxenagusia	14	7	7	0	0	66	11	
2. Amozkibar	10	8	5	0	3	23	21	
3. La Juve	9	7	4	1	2	30	20	
4. Labegaraieta	7	7	3	1	3	23	31	
5. EH Biterrak	7	7	3	1	3	18	27	
6. Shaktale	5	7	2	1	4	26	30	
7. Igandekoak	5	7	2	1	4	20	26	
8. Aldoka Maldoka	5	7	2	1	4	16	29	
9. Los Txupeta	2	7	1	0	6	19	46	

TALDEA	Punt.	J	I	B	G	G. Alde	G. Aurk.	E m u l t z o a
1. Soropotroak	13	7	6	1	0	40	13	
2. Hartu Zamak	10	7	5	0	2	39	15	
3. Eri	10	7	5	0	2	27	21	
4. Ezinleike	8	7	4	0	3	32	26	
5. Pikapiedras	8	8	3	2	3	21	26	
6. Ari Ari	4	6	2	0	4	23	25	
7. Kirolzaleak	4	6	2	0	4	13	33	
8. Patxaran Team	2	7	1	0	6	15	38	
9. Pata Negra	1	5	0	1	4	8	22	

emaitzak

Guadalest-Ogizun **0-5**
 Etxagi-Uve Bikoitza **4-5**
 Errotagain-Madura **12-2**
 Canalejas-Angiozar **4-0**
 Mongatx.-OH Zerezos .. **2-3**

Ozaeta-Kabia **3-3**
 Pagomendi-Usoa **3-6**
 Arkupe-Kayak O.J. **4-5**
 Bildurbarek-Arloteak ... **4-3**

Txipiron-Paok **1-2**
 A Ze Flaxa-Nekrofilik. .. **9-3**
 Krai-Kriterium **0-7**

La Juve-Igandekoak **7-2**
 Labegaraieta-Amozk. ... **4-2**
 Aldoka-Etxenagusia **0-12**
 Los Txupeta-EH Bit. **6-3**

Kirolzaleak-Hartu Z. **2-14**
 Ari Ari-Eri **2-6**
 Ezinleike-Pikapiedras .. **10-3**
 Pata Negra-Patx. T. **1-3**

partiduak

LARUNBATA

Barruan

9.00: Labegaraieta-EH Biterrak (Pata Negra)
 10.00: Pata Negra-Ari Ari (Arloteak)
 11.00: Revienta-Arloteak (Ari Ari)

IGANDEA

Barruan

9.00: Txipiron-Kriterium (Kirolzaleak)
 10.00: Kirolzaleak-Pata Negra (Bildurbarek OPEL/LAM)
 11.00: Bildurbarek-Pagomendi (Igandekoak)
 12.00: Igandekoak-Los Txupeta (Mongatxurra)
 13.00: Canalejas-Mongatxurra (Los Txupeta)

16.00: Revienta-Ufala (Shaktale)
 17.00: Shaktale-Aldoka M. (Errotagain)
 18.00: Ogizun-Errotagain (Etxenagusia)
 19.00: Etxenagusia-La Juve (Ogizun)

OHARRA:

Parentesi artean partiduak arbitratu behar dituzten taldeen izenak.





Martokoko lehenengo eskolako lehenengo ikasleak

Martoko eskola inauguratu zeneko argazkia omen da honako hau. Bertan izandako lehenengo ikasleak dituzue bertan, 1960-61 ikasturtekoak:

Aurreko ilaran: Jose Inazio Urbina, Joakin Arrese, Migel Angel Moreno, Maria Angeles Artola, Juan Carlos Sasieta, Olga Albeniz, Beni Agirre, Patxi Retolaza, Andres Diez, Belen Muniategi eta Cristina Iraegi.

Erdiko ilaran: Maria Jose Moreno, Arantza Gardoki, Maria Jose Velasco, Marilu Iurrebaso, Fran Sasieta, Maria Jesus Martinez, Mila Iglesias, Maria Jesus Larrañaga, Kontxi Sanz, Maria Eugenia Agirrebarrena eta Jose Luis Artega.

Atzeko ilaran: Valen Arrese, Josu Okina, Pedro Mari Laskurain, Bibiano Andueza, Xabier Egaña, Isabel Garai andereñoa, Victoriano Garcia, Migel Zenitagoia, Joselu Arana, Jose Ignacio Manso eta Jose Juan Bilbao.

*Estepan Plazaola
Argazkia: Marilu Iurrebaso*

Atsedeen zentrua

LOKARTU

Koltxoi-denda

Orain SORALUZEN



ZUBIETA

elektragintza

MOTORREN BOBINAKETA

ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK

Kruz Gallastegi, 2 behea

☎ 76 23 48



EGIZU KEINU NATURALA

Ez zaizu ezer kostatzen



Izugarri balio du



DEBA GARAIKO MANKOMUNITATEA
MANCOMUNIDAD DEL ALTO DEBA



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Obra Hidrauliko eta Ingurugiro Departamentua
Departamento de Obras Hidráulicas y Medio Ambiente

San Juan Pol./Ind.
TELLERIKO LANA
C-1-B Pab.
Tfnoa: 76 01 41
Faxa: 76 00 58
BERGARA

ANDUZU

ERAKUNTZA MATERIALEN BILTEGIA

*Benetako sua duten
berogailuak, tximiniara
ke-irteerarik behar ez dutenak*

*Aukera zabala estufa modelo
ezberdinetan: klasikoak,
nordikoak...*

